

BALOREZKO PROPOSAMENA

Ukaezina da gaur egun adin txikiko gazte asko lanean hasteko beharrean daudela, dirua irabazteko asmotan. Nahi horretan, denek arazo bera dute: adin txikikoak dira.

Hasteko, gazte horiek ezin dute edozein lanetan jardun, eta ahal dutenetan gurasoen baimena behar dute. Gainera, enpresari askok ez dituzte esperintziarik gabeko eta beraien usteko fundamentu gutxiko nerabeak kontratatu nahi. Egoera horretaz jabetuta, sei gazte horri aurre egiteko proiektu bat burutzeko elkartu gara.

Gure proposamena, hainbat esparrutan aritzen diren enpresekin bat egitea da. Horiek aurkezten dituzten lan eskaintzak bilduko ditugu, 15-17 urte bitarteko gazteek eskuragarri izango duten webgune batean, gurasoen oniritziarekin, noski. Bertan, interesatuta dauden enpresarekin lehengo harremana izateko aukera izango dute online elkarrizketa txiki baten bitartez.

Segurtasunari dagokionez, gurasoek beraien seme-alabak baimendu dituztela ziurtatzeko, edukiko dugun bulegora joan beharko dute, beraien tutore legalarekin eta horien NAN eta familia liburuarekin.

Horretaz gain, harpidetzen diren guztiek deskontuak izango dituzte antolatuko diren alor guztietako ikastaroetan.